

NATURAREN ZAINDARIAK
Aritz Olarte López de Luzuriaga
Oiartzun

Animaliak, nire lagun maiteak
animaliak, gizakion laguntzaileak
animaliak, ehiztarien mirabeak.

Zakurrak, zaunka
baina etxea bere esku dauka
zoraturik nauka.

Katuak miau!
baina triste nagoenean alaitzen nau
egun eta gau.

Behiak muu!
baina gaueko mamuak uxatzen ditu
bai zezen eta bai ñu.

Oilarrak kururruku!
baina goizeko seietan esnatzen gaitu
bere eginkizuna hori baitu.

Astoak arrantza!
baina gero denek egiten dute dantza
hauek gehiago dute dantzarien antza.

Animaliak,
gizakiaren ordeztaturaren
zaindariak, gure gudariak
gidariak.

Gizakiak,
kendu lurra suntsitzeko ideak
eta hartu animalien bideak,
horrela biziraungo du
gure planeta maiteak.

HUCK